

GOBERNU BATZARRA

2016. 09. 19

Alkatea:	Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamaseiko irailaren hemeretziaren, goizeko 08:00etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.
Olatz Peon Ormazabal	
Zinegotziak:	
Patxi Amantegi Zubiria Nerea Letamendia Belloso Jokin Azkue Arrastoa Iñigo Alonso Sarasibar	1.- Aurreko akta onartzea. 2.-Iurreamendi Egoitza: Abuztuko faktura. 3.-Tolosako Udalak Tolosaldeko Mankomunitateari egin beharreko ekarpen ekonomikoa. 2016 urteko ekarpen finkoa eta hainbat fakturak.
Idazkaria:	
Jose Luis Unanue Ugalde	4.-Gaztelako atea birgaitzeko obrak adjudikatzea. 5.-Tolosako Udalerriko eraikin publikoak eta hiri altzariak garbitzeko zerbitzuaren kontratazioa. 6.-29/2016 zenbakia duen faktura-zerrenda.
Kontuhartzaitzako Teknikaria:	
Paulino Alonso Eraso	

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2016ko irailaren 12an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.- Iurreamendi Egoitza: Abuztuko faktura.

Iurreamendi egoitzak abuztuko kuoten likidazioa aurkeztu du.

Hori horrela, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- lurreamendi egoitzari ordaintzea abuztuko kuoten likidazioari dagokion zenbatekoa, **17.508,46** €-koa, honela banatuta:

Autonomoen kostua: 649,76 €

Elbarrien defizita: 16.858,70 €

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuari.

3.-Tolosako Udalak Tolosaldeko Mankomunitateari egin beharreko ekarpen ekonomikoa. 2016 urteko ekarpen finkoa eta hainbat fakturak.

Tolosaldeko Mankomunitatearen Osoko Bilkurak 2014. ekitaldian mankomunitateko gastuei aurre egiteko udalek egin behar dituzten zehazteko irizpide berriak onartu zituen. Irizpide hauek bilketa sistema desberdinen existentzian dute oinarria, zati finko bat eta zati aldakor bat finkatuz: zati finkoa, komunean dauden gastuei aurre egiteko eta, zati aldakorra, udalek jasotzen dituzten zerbitzuen kostuetan oinarrituta.

2016ko urtarrilaren 18an, Tolosaldeko Mankomunitateko Batzarrak 2016ko ekitaldiko aurrekontua onartu zuen, non, ekitaldiko gastuen eta sarreraren xehetasunaz gain, udalen ekarpen finkoen banaketaren berri eman zen.

Tolosaldea mankomunitateak Tolosako Udalarari dagokion ekarpen finkoaren ekarpenaren agiria aurkeztu du:

Zabor bilketa Kostua	851.116,00
Gastu estrukturalak	294.188,37
Guztira	1.145.304,37

Bestalde, Tolosaldea Mankomunitateak ondorengo fakturak aurkeztu ditu:

2016 Urtarrila	79.514,31
2015 Otsaila	130.143,05
2016 Martxoa	114.941,11
2016 Apirila	116.664,36
2016 Maiatza	120.538,44
2016 Ekaina	117.391,59

Aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emanako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Tolosaldeko Mankomunitateak aurkeztutako Tolosako udalari dagokion ekarpen finkoa, hau da: 1.145.304,37 euro.

BIGARRENA.- Onartzea Tolosaldea Mankomunitateak aurkeztutako ondorengo faktura hauek:

2016 Urtarrila	79.514,31
2015 Otsaila	130.143,05
2016 Martxoa	114.941,11
2016 Apirila	116.664,36
2016 Maiatza	120.538,44
2016 Ekaina	117.391,59

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari Zerbitzu arloari eta Tolosaldea Mankomunitateari.

4.- Gaztelako atea birgaitzeko obrak adjudikatzea.

Bi mila hamaseiko ekainaren 27an egindako Gobernu Batzarrean onartu zen Tolosako "Gaztelako atea birgaitzeko" obrak kontratatzeko espediente eta Klausula Administratiboen agiria.

Lizitazio epean, honako hauek aurkeztu dira:

* Uzturpe, S.L.

* Construcciones Francisco Aierbe, S.L.

Lizitzaile guztiak onartu ziren prozedura parte hartzeko.

Arkitekto aholkulariak, berak egindako txosten teknikoaren bidez 2016eko uztailaren 6koan, proposatu zuen Uzturpe, S.L., enpresari adjudikatzea.

Horretan oinarrituta, 2016/1441ko uztailaren 26ko dekretuaren bidez Uztur-

La Junta de Gobierno, en sesión celebrada el 27 de junio de 2016, aprobó el expediente y los Pliegos de Cláusulas Administrativas para la contratación de las obras de "Rehabilitación de la puerta de Castilla" de Tolosa.

Durante la licitación se han presentado las siguientes proposiciones:

* Uzturpe, S.L.

* Construcciones Francisco Aierbe, S.L., Todos los licitadores fueron admitidos al procedimiento.

Mediante informe técnico, de fecha 26 de julio de 2016, el arquitecto asesor propone como adjudicatario a la empresa Uzturpe, S.L..

En base a ello, mediante decreto n.º 2016/1441, de fecha 26 de julio, se re-

pe, S.L., enpresari errekeritu zizaion zenbait dokumentu aurkezteko.

Irailaren 15ean, aurkeztu zuen eskatutako dokumentazioa.

Horregatik guztiagatik, eta kontuan harturik azalpen honetan azaldutakoa eta Sektore Publiko Kontratuen Testu Bateratuaren 15.4 artikulua xedatuaren arabera, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Lizitazio egintza baliozkotzat jotzea eta Uzturpe, S.L., enpresari adjudikatzea Tolosako "Gaztelako atea birgaitzeko" obretako kontratua, hurrengo era honetan:

* Prezioa: 65.251,39€ (BEZa barne).

* Exekuzio epea: bi hilabete

BIGARRENA.- Aurkeztu diren lizitatzailerik guztiei adjudikazioa jakinaraztea.

HIRUGARRENA.- Kontratua datorren azteartean 2016ko irailak 20an zinatuko da.

LAUGARRENA.- Kontratuaren formalizazio profileen argitaratzea adjudikatzenetik berrogeita zortzi eguneko epearen barruan.

quiere a Uzturpe, S.L., la presentación de determinada documentación.

El 15 de septiembre, presenta la documentación referida.

Por todo ello, teniendo en cuenta lo expuesto en la parte expositiva, y de conformidad al artículo 151.4 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

ACUERDA

PRIMERO.- Declarar la validez del acto de licitación y adjudicar a la empresa Uzturpe, S.L., el contrato para la ejecución de las obras "Rehabilitación de la puerta de Castilla" de Tolosa, en los siguientes términos:

* Precio: 65.251,39 euros (IVA incluido).

* Plazo de ejecución: dos meses.

SEGUNDO.- Notificar la adjudicación a todos los licitadores.

TERCERO.- Establecer que el contrato se formalizará el próximo martes 20 de septiembre de 2016.

CUARTO.- Publicar la formalización del contrato en el perfil del contratante dentro del plazo de cuarenta y ocho días, contado desde la fecha de la adjudicación.

5.- Tolosako Udalerriko eraikin publikoak eta hiri altzariak garbitzeko zerbitzuaren kontratazioa.

Ikusirik, Tolosako udalerriko eraikin publikoak eta hiri altzariak garbitzeko zerbitzuaren

kontratazioarako espedientea aurkeztu da, baldintza administratiboa partikularrak eta teknikoak barematuta.

Hortaz, Ingurumen, Auzo Obra eta Zerbitzuetako batzordeak jaulki duen diktamenarekin bat etorritz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea aipatutako kontratazio espedientea -prozedura irekiaren bidez-, Tolosako Udalerriko eraikin publikoak eta hiri altzariak garbitzeko zerbitzuaren kontratatzeko.

* Gehienezko kopurua 475.000,00 eurokoa izango da. Aurreko zenbatekotik, balio erantsiaren gaineko zergari 82.438,02 euro dagozkie.

BIGARRENA.- Gastua dagokien aurrekontu-kredituaren kargura izatea.

HIRUGARRENA.- Onartzea klausula administratibo eta teknikoaren baldintza agiriak aipameneko zerbitzua kontratatzeko, prozedura irekiaren bidez.

LAUGARRENA.- Adjudikatzeko prozedurari hasiera ematea, eta horretarako lizitazio deia egitea, bidezko iragarkiak argitaratuz EBAOn, Estatuko Aldizkari Ofizialean, GAOn eta Kontratatzailearen profilean.

6.-29/2016 zenbakia duen faktura-zerrenda.

Kontuhartzaitzak **29/2016** faktura zerrenda aurkeztu du; **79.057,87€**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- **29/2016** faktura zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontu-hartzaitzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 09:00tan.

ALKATEA

IDAZKARIA

Olatz Peon Ormazabal

Jose Luis Unanue Ugalde

